

MARRAZTEKO ETA IDAZTEKO DITUDAN TRESNAK



Ikastolan marrazketa eta idatz tresna asko erabiltzen ditugu. Zaharrena, agian, klariona da.

Ikasleok, **ordea**, klariona gutxitan erabiltzen dugu. Gehienetan erabiltzen ditugun tresnak arkatza, boligrafoa, arkatz markatzailea, zurezko margoak, argizariak, tenperak eta pintzelak dira. Denek balio dute marrazteko eta margotzeko. Tamaina txikiko irudi eta hizkiak egiteko, **hala ere**, arkatza, boligrafoa eta arkatz markatzailea dira egokienak. **Guztiekin** egin daitezke artelan politak. Nik, **aldiz**, argizari, tenpera eta pintzelak nahiago ditut. **Besteekin ez bezala**, izan ere, hiru horiekin zirriborro, kuixidade eta zipriztin-lan politagoak ateratzen zaizkit!

Testua irakurri ondoren, esan zuk zertarako erabiltzen duzun idatz tresna bakoitza.